



Autodidakta, betidanik liluratu nau irudien, marrazkien, pinturen, bideoen eta argazkien mundua.

Aspaldidanik datorkit argazkilaritzarekiko zaletasuna, argazki analogikoa sortzerakoan hain zuzen ere.

Urte askotan zehar, bideoak denbora asko kendu zidan. Hala ere, argazki digitala agertzerakoan, eta batez ere, hauek kalitate neurri egokiak eduki zituztenean, berriro ere, diziplina honi ekin nion. Nire sentimenduak adierazten saiatzen naiz.

Erretratu, arkitektura, natura hilak, kirolak, erortzear dauden eraikuntzen barnealdea, detaile txikiekin konposizioak, etab dira nere gozamina. Baina nire benetako pasioa, natura argazkia da, bereziki, inguruako paisaienak, non argi momentu hoberenak aurkitzen ditudan, eta era batean, nire jaioterriaren edertasuna erakusten dudana.

Denbora asko eramaten dut argazkia interesgarria egiten duten argi eta egoera atmosferiko egokiak bilatzen.

Sentsazio atsegingarriak transmititzeko ahalegin handia egiten dut.

Argazkiak harmoniatsu eta orekatuak izatea gustatzen zait, distraitu dezaketzen elementuak kenduz eta marren geometriarekin jokatu.

Argazkiaren prozesu guztia pertsonalki kontrolatzea gustatzen zait, ideiatik hasita, konposizioa, edizioa, imprimatzea eta azken aurkezpenarako muntaiarekin bukatuta.